

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2017

Joan zen urriren 31n Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen eta bere bi fundazioen (Medikuntza eta Zientzien Historiaren Euskal Museoa eta EHUren Uda Ikastaroak) ekonomia-finantza jardueraren 2017ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz ezin eman izan duen iritzirik Berriazko Geldikinaren zuzentasunaren gainean (75,5 milioi euro), zeinaren atal bat Gastu Orokorretarako Geldikintzat hartu behar bailitzateke.

Finantza egoerari dagokionez, emaitza arruntak behera egin du (murriztu egin dira transferentzia arruntek eragindako sarrerak eta gora egin dute langile gastuek). Kapitalezko eragiketengatiko emaitzak gora egin du, nagusiki, kapital-transferentziek ere egora egin dutelako. **Zorpetzeak berriz egin du behera** 2017an, zazpigarren urtez jarraian, eta aztertutako aldian **hobera egin du diruzaintza geldikinak**. Epaitegiak ondorioztatu du inbertsioak etorkizunean egin ahal izatea finantzaketa eskuratzeko gaitasunaren baitakoa dela, bai kapitalezko diru-laguntza bidez, bai berriz ere zorpetuta.

Txostenak, gainera, adierazi du 2017ko aurrekontuaren likidazioak **finantzaren oreka eta iraunkortasun printzipioak** betetzen dituela, Urteko Kontuetan jasotako informazioaren arabera.

Txostenak ondorioztatu du Unibertsitateak **zuzentasunez bete duela** 2017an ekonomia-finantzaren jardura arautu duen **lege araudia**; alabaina, unean uneko zenbait ez-betetze azaleratu dira bai **Langileriaren Gastuen** alorrean (irakasleei arautegian aurreikusi gabeko kontzeptuengatik 631.953 euroren ordainsariak ordaintzea eta aldi baterako lan kontratua duten irakasle eta ikerlariantzat Unibertsitateen Lege Organikoak ezarritako irakasleen plantillaren % 40ko muga gainditzea), bai **Administrazioko Kontratazioan** ere (6 espedientetan urteko aurrekontu gehienekoa edo esleitutako zenbatekoa gainditzea eta publikotasunik edo lehiarik gabe 1 milioi euroren gastuak izapidetzea). Bestalde, EHUren Uda Ikastaroak Fundazioaren ordainsari igoerak gainditu egin du Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak agindutakoa. Gainera, Fundazio honek langile baten aldi baterako lan kontratua mugagabe bihurtu du.